

ATARIKO TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO KAPITULUA
Mankomunitatearen osaera eta xedeak

1. Eibar, Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Deba, Mutriku, Ermua eta Mallabia udalerriek (lehenengo seiak Gipuzkoako Lurralde Historikokoak dira eta azken biak, aldiz, Bizkaiko Lurralde Historikokoak) Borondatezko Mankomunitatea osatu dute, hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta errausteko zerbitzuak, hondakin solido ez-organikoen tratamendua, bide garbiketa eta mankomunitateko txakurtegi zerbitzua modu elkartuan kudeatu, antolatu eta emateko.

2. Halaber, Mankomunitatearen xedea da Toki Administrazioaren eskumenekoak diren eskualdeko beste edozein zerbitzu eta ekimen ematea, baldin eta mankomunitatea osatzen duten udalek horiek ezarri eta ustiatzea erabakitzen badute, beren ekimenez edo Mankomunitateko Batzar Orokorrak proposatuta.


Nolanahi ere, Mankomunitateari ezin izango zaizkio esleitu mankomunitatea osatzen duen udal bakoitzak dituen udal eskumenak.

3. Toki entitate publikoa den aldetik, Mankomunitate honek nortasun juridikoa eta xedeak betetzeko gaitasun osoa ditu. Horrenbestez, legez aitortutako eskumenak erabiliko ditu mankomunitatea osatzen duten udalei dagokien lurralde esparruan, beste entitate publiko batzuekin hitzarmenak ezartzeko aukerari kalterik egin gabe.

BIGARREN KAPITULUA

Izena, egoitza eta ikurrak

4. Toki entitate honek "Deba Beheko Mankomunitatea - Mancomunidad del Bajo Deba" izena hartuko du.¹
5. Mankomunitatearen egoitza Eibarko Egigurentarren kaleko 2ko beheko solairuan dago.
6. Mankomunitatearen armarria honako hau izango da:



¹ **EGINBIDEA**; horren bidez, Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorrak, 1999ko urtarrilaren 20ko ohiz kanpoko bileran, Mankomunitatearen estatutuen 4. artikulua testua aldatzea onetsi zuela adierazi da. Hona hemen artikulua horren testu berria:

4. art. Toki Entitate horrek "DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA - MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA" izena hartuko du.

Mankomunitateko kide diren Udalen osoko bilkurek erabaki hori berretsi dute eta jakinarazpen horien kopia artxiboan dago.

Eibarren, 1999ko maiatzaren 3an

LEHENENGO TITULUA
GOBERNU-ORGANOAK

7. Honako hauek dira Deba Beheko Mankomunitateko gobernu-organoak:
1. Batzar Orokorra.
 2. Gobernu Komisiao.
 3. Lehendakaria.
 4. Irizpen Batzordeak.

LEHENENGO KAPITULUA
Batzar Orokorra

1. ATALA

Eraketa, izendapena, antolaketa eta uztea

8. Batzar Orokorra Mankomunitateko organo gorena da eta udalbatzetan hautatutako kideek osatzen dute, hurrengo eskalatik ondorioztatzen diren kopuruaren eta banaketaren arabera:
- 5.000 biztanle arteko udalerriak.....1 (bat) kide.
 - 5.001 eta 10.000 biztanle arteko udalerriak2 (bi) kide.
 - 10.001 eta 20.000 biztanle arteko udalerriak3 (hiru) kide.
 - 20.001 biztanle baino gehiagoko udalerriak4 (lau) kide.
- Biztanle horiek zuzenbidekoak eta udal erroldetan inskribatutakoak izango dira.

9.

1. Deba Beheko Mankomunitateko Udalei dagokie, hautazko kideen artean, Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorrean beren ordezkari izango direnak hautatzea.
2. Horretarako, Deba Beheko Mankomunitateko Udalek hautaketa hori egingo dute hogeita hamar eguneko epean, udalbatzak eratzeko egiten diren bileretatik aurrera zenbatuta.
3. Udal bakoitzeko Idazkaritzak egindako hautaketa egiaztatzen duen ziurtagiria egingo du. Ziurtagiri hori Deba Beheko Mankomunitateko Idazkaritzan aurkeztu beharko da, Deba Beheko Mankomunitateko udal bakoitzak ordezkariak hautatzeko erabakia hartzen duenetik bost eguneko epean.

10. Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorra egutegiko hirurogei egunen buruan eratuko da, toki hauteskundeak egiten diren egunetik aurrera zenbatuta, Deba Beheko Mankomunitateko udalen batean hautatutako zinegotzien jakinarazpenaren aurka hauteskunde-auzietako errekurtsioa aurkeztu ezean; izan ere, kasu horretan Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorra laurogei egunen buruan eratuko da. Horretarako, udal bakoitzak hautatutako hautazko kideak bilduko dira goizeko hamaiketan, Mankomunitateko idazkariak aldez aurretik deialdia egin ondoren, batzar aretoan edo Deba Beheko Mankomunitatearen egoitzan ondorio horretarako prestatutako tokian. Hautazko kideen gehiengo osoa ez badaoa bilera horretara, eratze bilera egingo da berriro bi egun geroago, toki eta ordu beretan, berariazko deialdirik egin behar izan gabe.

Bigarren deialdi horretara hautazko kideen gehiengo osoa ez badaoa, Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorra eratuko da, bertaratzen diren kideen kopurua edozein dela ere.

11. Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorraren eratze bileran, honela jardungo da:

1. Adineko Mahaia honakoek osatuko dute: kide zaharrena, mahaiburu jardungo dena, eta kide gazteena. Mahai horretako idazkaria Mankomunitatekoa izango da.
2. Mahaia hautetsiek aurkeztutako egiaztagutunak edo nortasun egiaztagiria egiaztatuko ditu, eta mahaiburuak Mankomunitateko Batzar Orokorra eratuko du.
3. Jarraian, Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko dira.

Lehendakari eta lehendakariorde hautatuko dira, hurrenez hurren, lehenengo bozketan botoen gehiengo osoa lortzen duten hautagaiak. Lehenengo bozketan hautagaietako inork botoen gehiengo osoa lortzen ez badu, beste bozketa bat egingo da eta lehendakari eta lehendakariorde hautatuko dira, hurrenez hurren, botoen gehiengo soilak lortzen duten hautagaiak. Berdinketa egonez gero, Deba Beheko Mankomunitatearen esparruan boto gehien jaso dituen alderdiko ordezkaria hautatuko da. Ondoren, Gobernu Komisioko kideak hautatuko dira.

4. Mankomunitateko Batzar Orokorren eratze bilerara bertaratzen ez diren kideak Mankomunitateko kide bihurtuko dira hurrengo bileretan, Mankomunitateko idazkariari haien egiaztagiria eman eta Batzar Orokorrak 2. zenbakian ezarri bezala aztertu eta gero.
-
12. Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, Batzar Orokorreko kide bihurtuko direla egiaztatu arte, horiek ezin izango dute kide jardun, ezta gobernu-organoen jardueretan parte hartu ere. Horrela, Mankomunitateko kideen izatezko kopurua murriztuko da, indarreko legediak eskatzen dituen bertaratze eta bozketa quorumen ondorioetarako.
 13. Mankomunitateko Batzar Orokorra eratu edo, hori eratu ondoren, Mankomunitateko kide bihurtu baino lehen, kideek diru-sarrerak ematen dizkieten edo eman diezazkieketen ondasunen eta jarduera pribatuen aitortzea egin beharko dute, beren udaleko idazkariaren aurrean aldez aurretik eginda eduki ezean. Kasu horretan, idazkariak aitortutako ondasunen berri ematen duen ziurtagiria bidaliko du.

Aitortzen horiek Mankomunitateko idazkariaren babesean ondorio horretarako

sortuko den Interesen Erregistroan inskribatuko dira.

Kidearen agintaldian aitortu diren datuetan edozein aldaketa egonez gero, aitorten berria egin beharko da, erregistro berean inskribatuko dena.

Aldaketa horiek jakinarazteko epea hilabete batekoa izango da, gertatzen diren egunetik aurrera zenbatuta.

Idazkariak egindako aitorten guztien hartu-agiria egingo du, aitortpena aurkeztu den eguna adierazita.

Lehendakariak berriaz eskatu arren, Mankomunitateko kide batek Interesen Erregistroan aitortpena egin beharra betetzen ez duenean, betebeharrak hori bete ez dela egiaztatzen duen eginbidea idatziko da bidezko liburuan eta erregistroan hori agertuko da, interesdunak lege ezarritako aitortpena egin beharra betetzen duen arte.

14. Batzar Orokorrak azken bilera egingo du, aurreko bileren akta onesteko ondorioetarako bakarrik, udalbatza berriak eratu baino bost egun aurrerago edo, egun hori jaieguna bada, aurreko egun baliodunean, eta, horrekin batera, kideek kargua utziko dute.

2. ATALA Eskuduntzak

15.

1. Batzar Orokorraren eskuduntzak hurrengoak dira:
 - A. Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakariordea hautatzea eta Gobernu Komisioko kideen izendapena berrestea.
 - B. Mankomunitatearen politika eta administrazio arauak ezartzea eta onestea.
 - C. Gobernu-organoak kontrolatzea eta fiskalizatzea.

- D. Mankomunitatearen estatutu organikoa eta haren aldaketak onestea, baita gainerako xedapen orokorrak, ordenantzak eta araudiak ere.
- E. Zerga arloko baliabide propioak eta udalek ordaindu beharreko kuotak zehaztea eta aurrekontuak onestea eta aldatzea; bere eskumeneko gaietan gastuak erabakitzea; kontuak onestea; eta kreditu- eta bermeragiketak hitzartzea.
- F. Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta elkarketa-espedienteak onestea.
- G. Beste herri administrazio batzuek eskuordetzan ematen dizkioten eskumenak ontzat hartzea.
- H. Beste toki entitate batzuei eta gainerako herri administrazioei eskumengatazkak planteatzea.
- I. Langileen plantilla onartzea. Lanpostuen zerrenda, funtzionarioen eta langileen diru-kopuru osagarrien finkapena eta aldi baterako langileen kopurua eta araubidea, 7/1985 Legearen VII. tituluari zehaztu bezala; Mankomunitateko funtzionarioak lanetik baztertzea berrestea eta langileak kaleratzea berrestea.
- J. Funtzionarioak eta langileak hautatzeko eta kontratatzeako oinarriak onestea.
- K. Ondarea besterentzea, 500.000 pezetatik gorakoak ez diren ondasun higigarriak izan ezik. Diru-kopuruak kontsumoko prezioen indizearen aldaketen arabera eguneratu ahal izango dira.
- L. Ondasun higigarriak eta higiezinak eskuratzea eta obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea, lehendakariaren edo Gobernu Komizioaren berariazko eskuduntza ez badira.
- M. Nahitaezko desjabetzearen figura erabiltzea eta horrek dakartzan erabakiak hartzea.
- N. Egintzak eta erabakiak ofizioz berrikustea, edozein gobernu-organotatik datozela ere.

- O. Administrazio- eta epai-ekintzak gauzatzea.
 - P. Mankomunitatea desegitea onestea.
 - Q. Lehendakariaren eta lehendakariordearen aurkako zentsura-mozioa onestea eta, horren ondorioz, horiek kargutik kentzea.
2. Mankomunitatearen estatutu organikoa onesteari eta, hala denean, aldatzeari eta Mankomunitatea eratzeari, handitzeari, xurgatzeari eta desegiteari buruzko erabakiak ondorio horretarako deitzen den Batzar Orokorraren ohiz kanpoko bilera hartuko dira, eguneko aztergaien zerrendan gai hori bakarrik agertuko delarik.

BIGARREN KAPITULUA Gobernu Komisioa

1. ATALA Izendapena, antolaketa eta uztea

16. Gobernu Komisioko kideak Deba Beheko Mankomunitatea osatzen duten udalak beste dira, kide bat egongo delarik udal bakoitzeko.

Udal bakoitzeko ordezkariak izendatu behar dituzte eta Batzar Orokorrek berretsiko du haien izendapena.

17. Gobernu Komisia Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorraren eratze bilera egin eta hamabosgarren egunean eratuko da.
18. Deba Beheko Mankomunitatea osatzen duten udaletako udalbatzak eratu aurreko hamargarren egunean edo, egun hori jaieguna bada, aurreko egun baliodunean Gobernu Komisia bere azken bilera egingo du, aurreko bileraren akta onesteko baino ez. Une horretatik aurrera, Deba Beheko Mankomunitateko lehendakariari egokituko zaizkio Mankomunitatearen kudeaketa eta administrazio arrunteko eskuduntza guztiak, eta berak gauzatuko ditu, Batzar Orokor berria eratzen den arte.

2. ATALA Eskuduntzak

19. Gobernu Komisiaoren eskuduntzak hurrengoak dira:
 - A. Mankomunitatearen zerbitzuen kudeaketa eta administrazioa zuzentzeko eta indartzeko helburua duten planak eta programak onestea.
 - B. Mankomunitatearen aurrekontua nola gauzatu garatzea, aurrekontuan aipatzen diren gastuak erabakiz; gastu horiek 500.000 pezetatik gorakoak izango dira eta ez dira diru-sarreraren % 4tik gorakoak izango, hornidurei eta zerbitzuei dagokienez, ezta % 10etik gorakoak ere, obrei dagokienez.
 - C. Lan publikoko eskaintzatik ondorioztatutako deialdiak egitea, Batzar Orokorrak funtzionarioak eta langileak hautatzeko eta kontratatzeke onetsi dituen oinarriekin bat etorrira.
 - D. Mankomunitaterako lan egiten duten langileak kontratatzea eta kaleratzea.
 - E. Mankomunitateko langileei bideratzen zaizkien diziplina espedienteak ebaztea edo zehatzea, eta langile horiei sariak ematea.
 - F. Mankomunitateko langileen administrazio-egoerak aitortzea.

- G. Mankomunitateko langileei produktibitate-osagarriak eta haborokinak ematea banan-banan.
- H. 500.000 pezetatik gorakoak ez diren ondasun higigarriak besterentzea. Dirukopuruak kontsumoko prezioen indizearen aldaketen arabera eguneratu ahal izango dira.
- I. Gainerako gobernu-organoei esleitu ez zaien beste edozein eskuduntza edo gobernu-organoei Gobernu Komisioari esleitu nahi dizkioten gainerakoak.

HIRUGARREN KAPITULUA

Lehendakaria

1. ATALA

Izendapena

- 20. Mankomunitateko lehendakaria Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorreko kide guztien artean hautatuko da, 11. artikuluan ezarri bezala.
- 21. Hautatzen den lehendakariak izendapena onartu, eta karguaz jabetu beharko du Batzar Orokorraren aurrean, hautatu eta berehala.
- 22. Hautatzen den lehendakaria bileran ez badago, beste bilera bat deituko da hurrengo hamar eta hamabost egun naturaleko epean egiteko, aurreko artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako.

Hautatzen den lehendakaria bilera horretara ez badao eta horretarako arrazoirik adierazten ez badu, izendapenari uko egiten diola ulertuko da. Horrela bada, Batzar Orokorrak beste kide bat hautatuko du, bertaratzen diren kide guztiak ados badaude, bilera horretan bertan edo, bestela, berrogeita zortzi ordu geroago egingo den bileran.

2. ATALA

Ez bertaratzea

23. Lehendakaria bertaratzen ez denean, ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, haren ordezkariordeak jardungo du eta, lehendakaria ez dagoen bitartean, haren eskuduntzak bere gain hartuko ditu, premiaz jardutea eskatzen duten egoerak sortzen badira. Aldi berean, lehendakaria ahalik eta lasterren bertaratzeko behar diren gestioak egingo ditu.

Kasu horretan lehendakariordeak premiazko egoerak eskatzen dituen ezinbesteko neurriak hartu baino ez du egingo.

24. Hurrengo egoeretako edozeinek sortuko du lehendakaria ez bertaratzea, hori justifikatzen duen arrazoia edozein dela ere:

1. Lehendakariaren beraren berriazko adierazpena, ez bertaratzeko arrazoia eta horren gutxi gorabeherako iraupena zehazten dituen.

2. Ondoz ondoko lau lanegunetan baino gehiagotan bulegora ez joatea, aurreko idatz-zatian aipatu den adierazpenik egin gabe.

1. idatz-zatian aipatutako egoera gertatzen bada, lehendakariak nork ordeztuko duen erabakiko du ezarri bezala, luzaroan bertaratzeko ez denez komenigarritzat jotzen badu.

2. idatz-zatian aipatutako egoera gertatzen bada, lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du haren eskuduntzak erabiltzeko, ebazpen arrazoituaren bidez. Ebazpen horren berri emango die Gobernu Komisioari eta Batzar Orokorrari, horiek egiten duten lehenengo bileran, lehendakariak berak erabaki hori berresten duenean izan ezik.

25. Arrazoitu gabeko noizbehinkako ez bertaratzeak edo haren ardurapean dauden betebeharrak betetzeak eragindakoak ez dira inoiz ez bertaratzetzat joko eta ez dute inola ere ekarriko lehendakariordeak lehendakariaren eskuduntzak bere gain hartzea, aurreko artikuluetan xedatutakoa izan ezik.

3. ATALA

Uztea

26. Indarreko legedian alkatearen kargua uzteko adierazten diren zirkunstantzietako edozeinengatik utzi beharko da lehendakariaren kargua.

Nolanahi ere, titularrak lehendakariaren kargua utzi behar badu, hura ordeztan duen beste bat hautatu beharko da derrigor.

27. Karguari uko egiten badiu, ukoa idatziz egin, eta Batzar Orokorrari aurkeztu beharko zaio.

Lehendakariaren karguari uko egiteak ez du ekarriko Batzar Orokorreko kide izateari uztea.

28. Aurkezpenari, izapideei eta ondorioei dagokienez, zentsura-mozioak hauteskunde-legedi orokorrean xedatutakoari helduko dio.

Dena den eta han xedatzen denari kalterik egin gabe, idatziz aurkeztu beharko da, eta proposamen-egileek behar bezala sinatuta. Proposamen-egileen zerrenda idazkiaren hasieran idatziko da.

Idazki horretan zentsura oinarritzen duten arrazoiak idatziko dira argi eta garbi eta behar bezala bereizita, eta lehendakaria izateko proposatzen den hautagaiaren izena adieraziko da.

Idazkia Mankomunitateko idazkariari emango zaio eta horrek bideratuko du, noiz sartu den adierazita. Jarraian, idazkiaren kopia ziurtatuak egingo ditu eta Mankomunitatea osatzen duten kide guztiei bidaliko dizkie.

Zentsura-mozioa aurkeztu ondoren, ezin izanen da ezer gehitu edo zuzendu bertan eta, era berean, ezin izanen da aldatu lehendakaria izateko proposatu den izangaia.

Zentsura-mozioaren proposamen-egileetako edonork atzera egin ahal izango du, mozioa bileran bozkatzan den unera arte. Mozio hori baliogabetu egingo da, proposamena ontzat hartzen jarraitzen duten kideen kopurua indarreko legediak

eskatzen duen gutxienekoa ez bada.

29. Lehendakariaren kargua uztea dakarten arrazoietakoa edozein modu fede-emailean jakiten den egunetik hurrengo hogeita hamar egunen barnean, Batzar Orokorraren ohiz kanpoko bilera deitu beharko da, arrazoi horiei buruz eta, hala denean, lehendakari berria hautatzeko aukerari buruz bakarrik hitz egiteko.

Ohiz kanpoko bilera hori zazpi egun aurrerago, gutxienez, deitu beharko da, deialdiaren eguna eta bilera egiteko eguna zenbatzen ez direla.

30. Lehendakaria ordeztzen duen lehendakariordeak aurreko artikuluan aipatutako ohiz kanpoko bilera egiteko eguna eta ordua zehaztuko ditu.

31. Lehendakaria hiltzen bada edo desgaiakuntza bereziaren zigorra ezartzen dion epai irmoa ematen bada, lehendakariordeak hartuko ditu bere gain lehendakariaren eginkizunak.

Gainerako kasuetan, lehendakariak bere eginkizunak gauzatzen jarraituko du, Batzar Orokorrek ohiz kanpoko bileran iritzia ematen duen arte.

32. Lehendakari berriaren izendapena, horrelakorik baldin badago, legedi orokorraren zehaztapenen eta estatutu honetan xedatutakoaren arabera izango da.

33. Ohiz kanpoko bileran zentsura-mozioa eztabaidatzeko, hurrengo arauak beteko dira:

1. Mozioaren proposamen-egile guztiek hori defendatzeko eskubidea izango dute, hitz egiteko denbora beren artean banatuta. Denbora hori ez da hogeita hamar minututik gorakoa izango. Halaber, denbora horretan haietako nork defendatuko duen erabaki ahal izango dute.
2. Lehendakariak hirurogei minutu izango ditu, gehienez, zentsura-mozioaren aurka eta bere jardueraren alde dituen arrazoiak azaltzeko.
3. Mozioa ontzat hartu ez duten eta lehendakaria kide ez duten alderdi

politikoetako bozeramaileek hitz egin ahal izango dute hamar minutuko gehieneko aldian, norberaren jarrera adierazteko. Hitz egiteko ordena honakoa izango da: kide gehien dituen alderditik kide gutxien dituen alderdira.

4. Mozioaren proposamen-egileek, lehendakariak eta gainerako alderdi politikoetako bozeramaileek berriro hitz egin ahal izango dute hamar minutuko gehieneko aldian, jarrerak edo argudioak argitzeko edo zehazteko.
 5. Hitz egiten amaitu ondoren, zentsura-mozioa osorik bozkatuko da, zuzenketarik gabe.
 6. Bozketa isilpekoa izango da. "Bai" hitzak mozioarekiko adostasuna adieraziko du; "ez" hitzak, aldiz, horren ukoa. Beste edozein adierazpen egiten bada edo adierazpenik egiten ez bada, hori abstentziotzat joko da.
 7. Baiezko botoen gehiengo osoa lortzeagatik zentsura-mozioa onesten bada, lehendakariaren izendapena baliogabetu eta mozioan proposatu dena hautatuko da. Azken horrek lehendakaritza hartuko du bere gain eta jarraian kargua onartuko du, estatutu honek ezarri bezala karguaz jabetuta.
 8. Zentsura-mozioaren alde edo aurka egiten diren hitzaldiek mozioa oinarritzen duten arrazoiei zorrotz heldu beharko diete, bestelakorik ezingo delarik argudiatu edo kontuan hartu.
34. Aurreko artikuluan adierazi den prozedura aplikatuko da, lehendakariaren kargua uzteko gainerako kasuetarako egokia den guztietan.

4. ATALA Eskuduntzak

35. Lehendakaria Mankomunitateko lehendakaria eta Deba Beheko Mankomunitateko Administrazio osoko nagusi gorena da.
36. Lehendakariaren eskuduntzak hurrengoak dira:
- A. Mankomunitateak egiten dituen ekintza publikoetan ordezkari eta buru jardutea, lege-xedapena dela-eta beste agintari batek lehendakaritza hori gauzatu behar duenean izan ezik.
 - B. Batzar Orokorraren, Gobernu Komisioaren eta Irizpen Batzordeen bilerak deitzea, buru jardutea eta bertan behera uztea, baita, berdinketa egonez gero, aukera baten alde egitea ere, bere kalitateko botoaz.
 - C. Mankomunitaterako lan egiten duten langileen burutza gorena gauzatzea.
 - D. Mankomunitatearen zerbitzuak zuzentzea eta ikuskatzea, Mankomunitate osoko administrazio osoaren eta zerbitzuen funtzionamendu zuzena zainduta eta funtzionamendu arrunterako oztopoak kenduta.
 - E. Mankomunitateko kideen eta funtzionarioen edo langileen eskuduntzak askatasunez gauzatzea eragozten duten oztopoak kentzea, indarreko lege-arauen arabera.
 - F. Mankomunitateko gobernu-organoen erabakiak argitaratzea, betetzea eta betearaztea.
 - G. Mankomunitatearen aurrekontu-proiektua prestatzea.
 - H. Ordainketak agintzea eta Mankomunitatearen ondarearen administrazioaren zein aurrekontuaren betetze-mailaren berri ematea.
 - I. Aurrekontuan idatzitako 500.000 pezetara arteko gastuak eta aurrekontuaren diru-sarrera arruntak erabakitzea, hornidurak eta zerbitzuak badira.

- J. Gordailuzaintzan diru-sarrerak formalizatzea dakarten agiriak baimentzea.
- K. Mankomunitateko karrerako funtzionarioak izendatzea, langileen kontratuak formalizatzea eta diziiplina-espedienteak bideratzeko agintzea.
- L. Agiri pribatuak edo publikoak baimentzea, Mankomunitatearen izenean.
- M. Premia badago, epai- eta administrazio-ekintzak gauzatzea, egiten den lehenengo bileran Batzar Orokorrari horien berri emanda.

LAUGARREN KAPITULUA

Lehendakariordea

1. ATALA Izendapena

37. Mankomunitateko lehendakariordea Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorreko kide guztien artean hautatuko da, 11. artikuluan ezarri bezala.

Dena den, kargu hori Gobernu Komisioko kide batek gauzatu beharko du.

38. Hautatzen den lehendakariordea bileran ez badago, beste bilera bat deituko da hurrengo hamar eta hamabost egun naturaleko epean egiteko, aurreko artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako.

Hautatzen den lehendakariordea bilera horretara ez badao eta horretarako arrazoirik adierazten ez badu, izendapenari uko egiten diola ulertuko da. Horrela bada, Batzar Orokorrak beste kide bat hautatuko du, bertaratzen diren kide guztiak ados badaude, bilera horretan bertan edo, bestela, berrogeita zortzi ordu geroago egingo den bileran.

2. ATALA

Uztea

39. Indarreko legedian alkatearen kargua uzteko adierazten diren zirkunstantzietako edozeinengatik utzi beharko da lehendakariordearen kargua.

Nolanahi ere, titularrak lehendakariordearen kargua utzi behar badu, hura ordeztan duen beste bat hautatu beharko da derrigor.

40. Karguari uko egiten badio, ukoa idatziz egin, eta Batzar Orokorrari aurkeztu beharko zaio.

Lehendakariordearen karguari uko egiteak ez du ekarriko Batzar Orokorreko kide izateari uztea.

41. Kargua uzteko lehendakariarentzat ezarritako gainerako arrazoiak lehendakariordeari ere aplikatu ahal izango zaizkio, zentsura-mozioa barne. Horretarako, lehendakariaren kargua uztea aipatzen duten artikuluetan kasu bakoitzerako ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

3. ATALA

Eskuduntzak

42. Lehendakariordeari egokituko zaio lehendakaria ordezte, hura ez dagoenean edo estatutu honetan ezarritako kasuetan.

Hurrengo paragrafoan adierazitakoa izan ezik, ordeztan horrek ez bertaratzea gertatu dela ezarri eta, hala denean, lehendakariari dagozkion eskuduntza guztiak gauzatzea ekarriko du.

Lehendakariordeak ezin izango du inola ere beste lehendakariorde bat hautatu, lehendakariaren eskuduntzarik eskuordetu edo jada egin direnak aldatu.

Horrez gain, lehendakariak berak esleitu dizkion eskuduntzak gauzatuko ditu.

BOSGARREN KAPITULUA Mankomunitateko kideak

1. ATALA Izendapena eta uztea

43. Deba Beheko Mankomunitatea osatzen duten udalbatzek hautatuko dituzte Mankomunitateko kideak, 8. artikuluan ezarritako kopuruari helduta.

44.
 1. Mankomunitateko kidearen kargua utziko da heriotzagatik, ukoagatik edo modu nagusian edo osagarrian kargu publikorako desgaiuntzaren zigorra ezartzen duen epai irmoagatik.
 2. Kargua uzteko ez da aplikatuko bileretara ez bertaratzea, auzotasuna galtzea edo bera hautatu zuen alderdiko kide izateari uztea.

45. Ukoa beti idatziz egin, eta lehendakariari aurkeztuko zaio. Horrek ukoaren berri emango du hurrengo bileran.

46. Kide baten lekua hutsik geratzea dakarten arrazoietakoa bat gertatzearen ondorioz Batzar Orokorrak kide baten lekua hutsik dagoela adierazi ondoren, erabakiaren ziurtagiria bidaliko zaio jatorriko Udaleko gobernu-organo eskudunari, egiaztatutuna eman dezan behar den pertsonaren alde. Pertsona hori Mankomunitateko kide bihurtuko da, estatutu honek zehaztu bezala.

47. Izendapenetik 90 eguneko epean hautatu den kidea Mankomunitateko kide bihurtzen ez bada estatutu honek ezarri bezala, horretarako arrazoi justifikaturik izan gabe, Batzar Orokorrak adierazi ahal izango du interesdunak kide izateari utzi diola, eta aurreko artikuluan ezarri bezala jardungo du.

2. ATALA Eskuduntzak

48. Mankomunitateko kideei egokituko zaie Batzar Orokorra osatzea, baita Batzar Orokorrak erabakitzeko aurkeztu behar diren gaien azterketa, txostena edo kontsulta gauzatu behar duten Mankomunitateko organo osagarriak ere, estatutu honetan ezarri bezala.

SEIGARREN KAPITULUA Irizpen batzordeak

1. ATALA Eraketa eta uzteak

49. Batzar Orokorrak bere eskumeneko gaien azterketa eta txostena egiteko komenigarritzat jotzen dituen irizpen batzordeak osatu ahal izango ditu.
50. Batzar Orokorrak irizpen batzordeen kopurua, eraketa eta eskuduntzak zehaztuko ditu, eratzen dituen egunetik 30 eguneko epean egiten den lehenengo bileran.

Dena den, Batzar Orokorrak lehen aipatu diren aldeetako edozein aldatu, batzorde berriak sortu edo daudenak kendu ahal izango ditu, horren ondoren.

Era berean, lehendakariak edo Batzar Orokorrak irizpen batzorde bereziak eratu ahal izango ditu edozein unetan, edozein gai zehatz aztertzeko. Batzorde horiek gaiari buruzko behin betiko ebazpena eman ondoren desegingo dira.

2. ATALA Eskuduntzak

51. Irizpen Batzordeei egokituko zaie Batzar Orokorrak ebatzi beharreko gai guztiak aztertzea eta horien ebazpen-proposamenak egitea.

Gainera, hori egingo du lehendakariak edo Gobernu Komisioak berariaz eskaturik, gobernu-organo horien eskumenekoak diren eta, haien garrantziagatik edo gatazkak sortzeko ahalmenagatik gomendatzen diren beste gai batzuk direla-eta.

52. Irizpen batzorde bakoitza eratzeko unean, Batzar Orokorrak haren jarduketa esparrua zehaztu beharko du, zein gai multzoren gainean gauzatuko dituen bere eskuduntzak adierazita.

Irizpen batzordeek ezin izango dituzte aztertu beste irizpen batzorde bati dagozkion gaiak edo aldeak, lehendakariak ebatziko ditu gatazkak.

53. Irizpen batzordeen irizpenak edo proposamenak ez dira lotesleak izango. Hori dela-eta, gobernu-organo erabakitzaileak kasu bakoitzean egokitzen jotzen duen ebazpena hartu ahal izango du.

54. Estatutu honetan ezarritako gobernu-organoetako edozeinek aztertu eta, hala denean, ebatzi behar dituen gai guztiak bidezko administrazio unitateak bideratuko ditu, aldez aurretik.

BIGARREN TITULUA

LEHENENGO KAPITULUA

Ebazpenak hartzea

55. Gobernu-organoez ebazpenak hartuko dituzte, estatutu honetan eta indarreko antolamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

1. ATALA

Kide bakarreko organoak

56. Kide bakarreko gobernu-organoez erabakiak idatziz hartuko dituzte, erabakien izaera dela-eta hori egin behar ez denean izan ezik. "Dekretua" esango zaie, izaera zehatza badute, eta "Bandoa", berriz, hainbat pertsonari zuzentzen bazaizkie eta gai zehatz bat ebazteko helburua ez badute.

Ebazpen horiek organoko titularrak ezarriko ditu eta dagokion espedienteari erantsiko zaizkio.

57. Baliteke ebazpenak ebazpen-proposamenarekiko adostasuna adieraztea bakarrik; kasu horretan, proposamena ebazpenari atxikiko zaio osorik eta horren arrazoia izango da.

Bestela, eta beharrezkoa bada, hori justifikatzen duten arrazoiak azalduko ditu.

2. ATALA

Kide anitzeko organoak

58. Gobernu Komisioak eta Batzar Orokorrak beren erabakiak hartuko dituzte ohiko zein ohiz kanpoko bileretan; horiei "Erabaki" esango zaie.

Ohiko bilerak dira aurretik ezarritako aldizkakotasuna errespetatuta egiten direnak; ohiz kanpokoak, ostera, beste guztiak.

Irizpen batzordeek berdin jardungo dute eta haien erabakiei "Proposamen" esango zaie.

1. azpiatala Bileren deialdia

59. Kide anitzeko organoak bildu egingo dira bilerak egiteko, lehendakariak idatzizko deialdia bidali ondoren. Deialdi hori lau egun baliodun aurrerago egin beharko da, gutxienez, deialdiaren eguna eta bilera egiteko eguna zenbatzen ez direla, eta bertan ondokoak adieraziko dira:

1. Bilera egiteko tokia.
2. Bilera egiteko eguna eta ordua.
3. Aztertu beharreko gaien zerrenda edo aztergaien zerrenda.
4. Ohiko bilera ala ohiz kanpoko bilera den.

Kide anitzeko organoa osatzen duten kideei deialdia jakinaraziko zaie behar bezalako aurrerapenaz, eta deialdia bera Mankomunitatearen iragarki-oholean jarriko da jendaurrean.

Ondorio horietarako, kideek Mankomunitateko Idazkaritzan adierazi beharko dute nora bidali behar zaien jakinarazpena, beti Mankomunitatearen jurisdikzioaren barnean. Betekizun hori jakinarazpena leku horretara bidaliz beteko da. Berariaz adierazi ezean, kide bakoitzari dagokion udalera bidaliko da jakinarazpena eta, bestela, kideak Mankomunitatean esleituta duen lekuan edo kutxatilategian utziko da deialdia.

Kideei eguneko aztergaien zerrenden berri eman behar zaienez, betekizun hori betetzen dela behar bezala egiaztatu beharko da Mankomunitateko Idazkaritzan.

60. Premiaz deitzen diren ohiz kanpoko bilerek aurreko artikulua aipatzen duen lau eguneko epea murriztu ahal izango dute, nahiz eta Batzar Orokorrek deialdiaren premia aitortu beharko duen, eguneko aztergaien zerrendan aipatutako gaiak aztertzen hasi baino lehen; horretarako, lehendakariak bilera justifikatzen duten arrazoiak azaldu beharko ditu.

Premia hori onartzen ez bada, bilera amaituko da inolako erabakirik hartu gabe.

61. Nolanahi ere, kide anitzeko organoa eratuko da, kide guztiak eta Mankomunitateko idazkaria bertaratzen badira eta aho batez erabakitzen badute; aldi berean, eguneko aztergaien zerrenda edo aztertu beharreko gaiak erabakiko dituzte.

62. Kide anitzeko organoen bileretan, edozein izaera dutela ere, ezin izango da aztertu eguneko aztergaien zerrendan agertzen ez den gairik, 61. artikuluan bildutakoa salbuetsita.

Eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiei buruzko espedienteek kide anitzeko organoko kideen eskura egon beharko dute, deialdia egiten den egunetik beretik.

63. Kide anitzeko organoen bileren eguneko aztergaien zerrenda lehendakariak prestatuko du. Horretarako, idazkariak hainbat bulego eta zerbitzutatik jaso dituen gai amaituen zerrenda prestatu, eta haren esku jarriko du. Izan ere, irizpen batzordeek gai horiek prestatu eta haiei buruzko irizpena eman dituzte jada eta, beraz, eguneko aztergaien zerrendan ager daitezke.

2. azpiatala Bilerak egitea

64. Bilerak Mankomunitatearen egoitzan egingo dira.

65. Batzar Orokorrak ohiko bilera egingo du, bere eratze bileran ohiko bileretarako finkatu ziren orduan eta egunetan.
66. Gobernu Komisioak ohiko bilera egingo du, bere eratze bileran ohiko bileretarako finkatu ziren orduan eta egunetan.
67. Batzar Orokorrak eta Gobernu Komisioak ohiz kanpoko bilerak egingo dituzte, lehendakariak aurretik deialdia egin ondoren edo horiek osatzen dituzten kideen legezko kopuruaren laurden batek, gutxienez, eskatuta.

Azken kasu horretan, eskatzaileek sinatu duten idazkiaren bidez eskatu beharko da ohiz kanpoko bilera egiteko. Idazki horretan aztertu beharreko gaia/gaiak adierazi beharko da/dira.

Eskaera egiten denetik 15 eguneko epean, eskatu den ohiz kanpoko bilera deituko du lehendakariak 4 eguneko gehieneko eperako edo bilera horren aztergaiak gehituko dizkio ohiko bilera baten aztergaien zerrendari. Hala ere, eskaera hori irizpen batzordeei aurkeztu ahal izango zaie, beraiek azter dezaten, izapide hori salbuesten duten zirkunstantzietako baten bat gertatu ezean.

Proposatzen diren gai horiek ohiko edo ohiz kanpoko bilera baten edo gehiagoren eguneko aztergaien zerrendari gehitzeak eskatu den bilera zehatza egin beharretik salbuesten du.

Eskatutako ohiz kanpoko bileraren deialdiak ez du moteltzen lehendakariak eguneko aztergaien zerrendari beste aztergai batzuk gehitzeko duen ahalmena.

68. Irizpen batzordeek bilerak egingo dituzte, batzordeburuak bilera deitzen duenean eta kideen laurden batek eskatzen duenean, Batzar Orokorraren hurrengo ohiko bileran proposamenak aztertzeke behar bezalako aurrerapenaz, baldin eta deitzea justifikatzen duten gaiak badaude.

69. Kide anitzeko organoen bilerak egiteko, kideen heren batek, gutxienez, bertaratu beharko du eta kopuru horri eutsi beharko zaio bilera osoan. Kopuru horri eusten ez bazaio, bilera bertan behera utzi, eta bigarren deialdia egingo da.
70. Irizpen batzordeen bilerei dagokienez, deialdian adierazi den orduan kopuru hori ez badago, bilera ordu erdi beranduago hasiko da, une horretan bertaratzen diren kideen kopurua edozein dela ere.
71. Kide anitzeko organoen bilerak baliozkoak izateko, batzordeburuak eta idazkariak edo horiek legez ordeztzen dituztenek bertaratu beharko dute.

Idazkaria bileretara joango da fede-emaile eta lege aholkularia den aldetik, akta idatzi eta baimenduko du, eta lehendakariari lagunduko dio, eguneko aztergaien zerrendako gaien berri ematen.

Gainera, Gobernu Komisioaren eta Batzar Orokorraren bileretara gerenteak eta ekonomia eta kontabilitateko goi teknikariak edo horiek ordeztzen dituztenek joan beharko dute, aurreko paragrafoan adierazi den helbururako.

72. Batzar Okorrrak egiten dituen bilerak publikoak dira eta batzar aretoan sartu ahal diren guztiak bertaratu ahal izango dira horietara.
73. Hala ere, lehendakariak erabaki ahal izango du bilera ateari itxita eta ikuslerik gabe egitea:
 1. Mankomunitatearen edo haren kideetako batzuen ospari eta ohoreari eragiten dieten gaiak eztabaidatu eta ebatzi behar direnean.
 2. Bilera aurretik bertan behera utzi denean eta lehendakariak modu justifikatuan uste duenean etetea eragin zuten arrazoiak berriro gertatuko direla.

Lehendakariaren edo lehendakariordearen aurkako zentsura-mozioa ezin izango da inola ere aztertu atek itxita egonda.

74. Gobernu Komisioak egiten dituen bilerak ez dira publikoak izango eta hori osatzen duten pertsonak baino ezin izango dira joan haren bileretara.

Dena den, komenigarritzat jotzen badu, Komisioak berak eskatu ahal izango du funtzionarioak edo hartu beharreko erabakiei buruzko azalpenak edo aholkuak ematen dizkioten beste pertsona batzuk bertaratzeko; pertsona horiek batzar aretotik irten beharko dute, beren hitzaldia amaitu ondoren.

Batzar Orokorreko kideei bileren akten kopia bidaliko zaie.

3. azpiatala Erabakiak hartzea

75. Erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Nolanahi ere, beharrezkoa da Mankomunitateko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:
- A. Mankomunitatearen estatutu organikoa onestea eta aldatzea.
 - B. Eginkizunak edo jarduerak beste herri administrazio batzuei besterentzea.
 - C. Ondasunak edo zerbitzuak bost urtean baino gehiagotan ematea, baldin eta haien zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten % 10etik gorakoa bada.
 - D. Finantza edo kreditu eragiketak eta kita eta itzaroteko emakidak onestea, haien zenbatekoa aurrekontuaren baliabide arrunten % 5etik gorakoa bada.
 - E. Zerga izaerako baliabide propioak ezartzea eta antolatzea.

- F. Mankomunitateko funtzionarioak lanetik baztertzea eta langileen diziplina iraizpena berrestea.
 - G. Ondasunak besterentzea, haien zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten % 10etik gorakoa bada.
 - H. Herri-jabariko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
 - I. Beste herri administrazio edo erakunde batzuei ondasunak doan lagatzea.
 - J. Legeak zehaztutako gainerako arloak.
76. Bozketaren emaitza berdinketa bada, beste bozketa bat egingo da eta, horretan ere berdinketa badago, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

4. azpiatala Aktak

77. Mankomunitateko kide anitzeko organoek egiten dituzten bilera guztien akta egingo du idazkariak, eta horietan hurrengo aldeak adieraziko dira:
- 1. Bidezko gobernu-organoa.
 - 2. Non, noiz eta zein ordutan hasi eta amaitu den.
 - 3. Bilera ohikoa edo ohiz kanpokoa izan den, eta lehenengo deialdian edo bigarreanean egin den.
 - 4. Lehendakariaren izena.
 - 5. Bertaratzen diren, ez azaltzeko arrazoia agertzen duten eta ez azaltzeko arrazoirik agertzen ez duten kideen izenak.

6. Aztertu diren gaiak, hitzaldien laburpen laburra, defendatutako boto partikularrak eta egindako zuzenketak eta gehikuntzak.
 7. Bozketen emaitza.
 8. Hartutako erabakiak.
 9. Bileran gertatzen den edozein gorabehera, idazkariaren iritziz aipatzea merezi duena eta aztertutako gaiari/gaiei lotuta dagoena.
78. Bileren aktak kide anitzeko bidezko organoak berak onetsiko ditu, akta idatzi ondoren egiten den hurrengo bileran. Ondorio horretarako, aktaren onespena eguneko aztergaien zerrendako lehenengo gaia izango da.
- Bertaratutako kide guztiei kopia bidali ezean, akta irakurri eta onetsiko da, eragozpenik ez badago.
- Eragozpenekin zein eragozpenik gabe akta onetsi eta berehala, lehendakariak eta idazkariak sinatu beharko dute.

HIRUGARREN TITULUA

MANKOMUNITATEKO KIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

LEHENENGO KAPITULUA

Izaera ekonomikoa

79. Mankomunitateko kideek kalte-ordaina jaso beharko dute jardueraren ondorioz duten edozein galera ekonomikorengatik, Batzar Orokorrak erabakitako moduan eta zenbatekoan eta aurrekontuko kreditu egokien barnean.
80. Mankomunitateko kide anitzeko organoek egiten dituzten bileretara bertaratzeagatik Batzar Orokorrak ondorio horretarako erabakitako zenbatekoa jasoko dute horiek osatzen dituzten kideek, dieta gisa.

Zenbateko berdina jasoko dute, Lehendakaritzak berariaz baimentzen dituen ikastaro, jardunaldi, bilera eta abarretara joateagatik. Azken kasu horretan zenbatekoa ordainduko da jardueraren egun edo zatiki bakoitzeko, joan-etorrirako erabilitako denbora barne.

BIGARREN KAPITULUA

Informazioa jasotzeko eskubidea

81. Mankomunitateko kide guztiek eskubidea dute lehendakariak administrazio zerbitzuen esku dauden eta eginkizuna garatzeko behar diren aurrekarien, datuen eta informazioen berri emateko.
82. Lehendakariak informazio hori ematea ukatu ahal izango du, hurrengo kasuan:

Informazioaren ezagutzak edo zabalkuntzak pertsonen ohorerako eskubideari, norberaren edo familiaren intimitateari edo irudiari berari kalte egin ahal badio.

Mankomunitateko kideei baliabide material egokiak emango zaizkie, kontsultatu ahal dituzten espedienteak eta informazioa kontsultatzeko eta haietatik datuak hartzeko.

HIRUGARREN KAPITULUA

Betebeharrak

83. Mankomunitateko kideek Batzarraren, Gobernu Komisioaren eta osatzen dituzten irizpen batzordeen bileretara joan behar dute eta beren jokaera moldatu behar dute toki korporazio bateko kide hautetsien izaerara, bileretan ordena, diziplina eta adeitasuna errespetatuta.
84. Mankomunitateko kideek legez xedatzen diren bateraezintasunei buruzko arauak bete beharko dituzte uneoro.
85. Mankomunitateko idazkariari eta kontu-hartzaileari honako hauek egokituko zaizkio:
 1. Fede publikoa eta lege aholkularitza.
 2. Ekonomia- eta finantza-kudeaketaren nahiz aurrekontu-kudeaketaren kontrola eta barneko fiskalizazioa, eta kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa, legez ezarritako edukiarekin eta norainokoarekin.
86. Batzar Orokorrak gerentea hautatu ahal izango du, Mankomunitatearen zerbitzuen ekimenak eta programak aztertu, garatu eta gauzatzeko.
87. Funtsak erabiltzeko eta zaintzeko eginkizunetarako, pertsona bat hautatu ahal izango da, Mankomunitateko langileen artean.

LAUGARREN TITULUA
ARAUBIDE EKONOMIKOA

LEHENENGO KAPITULUA
Diru-sarrerak

88. Mankomunitatearen baliabideak honakoak izan daitezke:
- A. Zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.
 - B. Bere eskumeneko zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko tasak.
 - C. Mankomunitatearen eskumeneko lanak egiteko edo zerbitzuak ezartzeko, zabaltzeko edo hobetzeko ekarpen bereziak.
 - D. Haren alde ezar daitezkeen estatuko eta autonomia erkidegoko zergetako partaidetza.
 - E. Diru-laguntzak eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrerak, bereziki Mankomunitatea osatzen duten udalen ekarpenak.
 - F. Kreditu-eragiketetatik datozenak.
 - G. Isunak.

BIGARREN KAPITULUA
Gastuak

89. Mankomunitateko kide diren udalerrien Udalek Mankomunitatearen gastuak diruz lagundu, eta betebeharrei eta Mankomunitateak bere xedeetarako hartu ohi dituen zorrei erantzun beharko diete, horiek bermatuta, Mankomunitatearen baliabideek horiek guztiak estali ezin dituztenean.

BOSGARREN TITULUA
MANKOMUNITATEAREN IRAUPENA ETA DESEGITEA

LEHENENGO KAPITULUA
Iraupena

90. Deba Beheko Mankomunitatearen iraupena edo indarraldia mugagabea izango da.

BIGARREN KAPITULUA
Mankomunitatea aldatzea eta desegitea

91. Udalak Mankomunitateko kide bihurtzeko eta horretatik banantzeko, hurrengo prozedurari jarraituko zaio, autonomia erkidegoko legedian bestelakoa adierazteari kalterik egin gabe:
- A. Batzar Orokorrak Mankomunitateko kide bihurtzeko eta horretatik banantzeko proposamena onestea gehiengo osoz.
 - B. Kide diren Udalen osoko bilkurak erabakia berrestea.
 - C. Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako organo eskudunek txostena egitea.
 - D. Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak behin betiko onestea.

B eta C izapideak batera egin ahal izango dira.

Bananduz gero, ez da loteslea izango Mankomunitateko Batzar Orokorrak horri buruz hartzen duen erabakia.

92. Asmoa Mankomunitatearen zerbitzuak handitzea denean, aurreko artikuluan ezarritako prozedura berdinari jarraituko zaio, nahiz eta Batzar Orokorrak zerbitzua handitzeko proiektua onesteko hartzen duen erabakia txosten batean oinarrituko den; txosten horrek kostuen azterlana agertu eta zerbitzua erkidetzeko komenigarritasuna adieraziko du.

93. Deba Beheko Mankomunitatearen estatutua aldatzen bada kideen kopurua aldatu edo zerbitzuak handitu edo kendu gabe, nahikoa izango da 91. artikulua A eta B idatz-zatietan aipatu bezala bideratzea.
94. Deba Beheko Mankomunitatea desegin egingo da, bai bere asmoak bete ezin izateagatik, bai hori osatzen duten udalak legez ezarritako prozeduraren arabera horretatik banandu izanagatik (bat izan ezik), bai antzeko beste arrazoi batzuegatik. Horretarako, Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorrak erabakia hartu beharko du eraketaren antzeko prozeduraren bidez, kideen gehiengo osoak aldeko botoa ematen duela.
- 95.
1. Deba Beheko Mankomunitatea desegitean haren ondasunak eta eskubideak erabiliko dira Mankomunitatearen zorrak ordaintzeko, baita betebeharrak betetzeko ere. Gainerako dirua, berriz, garai hartan elkartuta egoten jarraitzen duten udalen artean banatuko da, haien partaidetzen arabera.
 2. Mankomunitateak sortu dituen azterlan, proiektu eta agiri banaezinak Mankomunitatearen egoitzari dagokion udalerriko udaletxean artxibatuko dira, eta ukitutako udalen esku egongo dira hor.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Debako eta Mutrikuko Udalak Deba Beheko Mankomunitateko kide bihurtzeko egin den azterlana eta asmoa bera nahiko aurreratuta daude. Hori dela eta, kide bihurtuko dira Mankomunitateko Batzar Orokorrak eta hori osatzen duten Udalen osoko bilkurek aldeko erabakiak hartzen badituzte, Debako eta Mutrikuko Udalek eskaturik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA. Mankomunitateko kide diren udalerrietako udal guztiek zerbitzu bakoitzerako ezartzen diren arauak bete beharko dituzte, Deba Beheko Mankomunitateko Batzar Orokorrak ezartzen dituen moduan eta baldintzekin.

BIGARRENA. Halaber, Mankomunitateko kide diren udalerrietako udal guztiek konpromisoa hartzen dute beharrezko baliabideak emateko, instalazioez arduratzen diren langileen bitartez Mankomunitatearen instalazioek behar bezalako aldizkakotasunez eta eraginkortasunez funtziona dezaten, organoek onesten dituzten planen eta Lehendakaritzak horretarako ematen dituen jarraibideen arabera.

HIRUGARRENA. Estatutu honetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko Legean, Eusko Legebiltzarrak toki araubideari buruz onetsitako legedian eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituko zaio, oinarrizko artikuluei eta toki araubidearen arloan aplikatu daitezkeen gainerako arauak kalterik egin gabe.

Organoen antolaketa-araubideari eta funtzionamenduari dagokienez, estatutu hau aplikatuko da, lehenik eta behin, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legean xedatutakoari lotzen bazaio.

AZKEN XEDAPENA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, estatutu honek indarra hartuko du legez tramitatu, haren edukiak Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako "aldizkari ofizialetan" osorik argitaratu, eta aipatu lege-testuaren 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro ondoren.